

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2013ko ekainaren 4a. IX. urtea. 2.604. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Protokoloa osatu duten eragile eta erakundeetako ordezkariak, atzo, Tolosako udaletxean egindako aurkezpenean. A. IMAZ

Elkarlana «ezinbestekoa» da genero indarkeriari aurre egiteko

Genero indarkeria eta sexu erasoak pairatzen dituzten emakumeei arreta hobea emateko protokoloa osatu dute Tolosan

Hainbat eragile eta erakunde aritu dira osaketan; erasotuak izan diren emakumeen parte hartzea nabarmendu dute **3**

Tolosako merkatarien %90k zerbitzua euskaraz eman dezake

Euskararen Mahaiaren arabera, euskarak «balio erantsia» ematen dio herriari; bere asmoa da merkatori guztiek zerbitzua euskaraz ematea **3**



Tolosako merkataritzari buruzko ikerketaren berri eman dute. A. IMAZ

Lehen Euskal Herria Mendi Erronkarekin «oso gustura», antolatzaileak

ESAI Tek esan du helburuak bete dituela; Angel Arrietak eta Leire Agirrezabala ibartarrak irabazi dute **6**

Atez atekoaren aurka egin dute ehunka herritarrek Villabonan

Atez atekoa jarri behar duten herrietako alkateei atzera egiteko eskatu die Patxi Amantegik **2**

Errauste plantarik ez dutela nahi aldarrikatu dute Villabonan

‘Errausketarik ez’ lelopean hainbat herritarrek ekimena egin dute Txistulari plazan **2**

Goio Jimenez preso tolosarra aske geratuko da bermepean **3**

Ibai Iriarte
Tolosako alkatearekin
**ZUZENKO
ELKARRIZKETA**

Ikusi tolosaldea.hitza.info webgunean

Bidali zure galderak:
tolosaldean@hitza.info
edo
[@hitzatolosaldea](https://twitter.com/hitzatolosaldea)



-GAUR-
13:00etan



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza info

Atez atekoaren aurka mobilizatu dira Villabonan eta Zizurkilen

Atez atekoarekin atzera egiteko eskatu die Patxi Amantegik Alegia, Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkilgo alkateei

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Tolosaldea Txukun plataformak deituta, manifestazio jendetsua egin zuten ostiralean Villabonan eta Zizurkilen atez ateko sistema ez ezartzeko eskatuz.

Arratsaldeko zazpian, aterkipean, abiatu zen manifestazioa *Birziklapena bai, imposaketarik ez*

lelopean eta Patxi Amantegi, Tolosaldea Txukuneko bozeramailea buru zuela. Isilik zeharkatu zituzten bi herrietako kaleak «isiltasun horrek alkateen ahotsak baino oihartzun gehiago» duelakoan.

Bidean, manifestazioaren buruak txaloak jaso zituen Tolosaldeko herri ezberdinetatik etorritako ehunka lagunengatik. Tartean ziren, besteak beste, Oscar Renedo eta Jose Ignacio Asensio Tolosako PSEko ordezkariak, edo Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkate ohia (EAJ).

Beste eskualde batzuetako herrietatik ere hurbildu ziren Villabonara, atez atekoaren aurkako



Gipuzkoako herrietatik ehunka herritar gerturatu ziren Villabonara. M. IRAOLA

Legazpi eta Bergarako plataformak kasu. Bergara Garbia plataformak adibidez, *5. edukiontzia bai! 4.691 sinadura, atez atekoari EZ!* lelodun pankarta eraman zuten; legazpiarrek berriz, *Atez atekoari ez. 3.683 legazpiar atez atekoaren kontra* lelopean zeharkatu zituzten Villabonako kaleak.

Manifestazioaren amaieran, Patxi Amantegik atzera egiteko es-

katu zien Alegia, Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkilgo alkateei. «Jzan daitezela ausartak, har ditzatela eredu gisa Donostia, Bergara edo Legazpiko udalek egindakoak, eta bilatu dezatela herritar guztion arteko adostasuna. Tolosaldea Txukunetik, prest gaude beraiekin hitz egiteko eta guztion nahiak asetuko dituen sistema bat bilatzeko».

Era berean, atez atekoarekin jarraitzea «inposizioa» dela salatu nahi izan zuen Amantegik, eta horrela, herritarren arteko «diskarra sortu» besterik ez duela egin esan zuen Tolosaldea Txukuneko ordezkariak.

Bestalde, desobedientzia zibila egitera deitu zituen atez atekoaren aurka dauden herritarrek, beti ere, «errespetua» erabilita.

↓ Tolosaldean atez ateko sistema ezarri behar duten herrietako alkateen erreakzioak

Unai Iraola

Alegiako alkatea

«Legitimoa da manifestatzea, baina guk ere badugu legimitatea hautetsi moduan herriarentzat hoberena den erabakia hartzeko, eta gure informazioaren arabera, atez atekoa da».

Pello Estanga

Anoetako alkatea

«Guztiz errespetagarria da, eta ona gainera norberak bere iritzia azaltzea. Baina herritarrentzat hoberena delako hautatu dugu atez ateko sistema eta apustu horrekin jarraituko dugu».

Ainhoa Ugalde

Irurako alkatea

«Eskubide guztia dute euren iritzia plazaratzeko, baina atez atekoaren aldeko apustua ona dela uste dugu. Ondo ari gara lanean eta bide horretan jarraitzeko asmoa daukagu».

Galder Azkue

Amasa-Villabonako alkatea

«Beraien iritzia plazaratzeko eskubidea dute, baina guk gure programarekin jarraituko dugu zero zaborrerako bidea eginez. Nire ustez batzuk gai honekin burua galtzen ari dira».

Joxe Mari Luengo

Zizurkilgo alkatea

«Engainu asko dago alderdi batzuen partetik, eta jendeak benetan ez daki zer den atez atekoa. Guk atez atekoan sinesten dugu emaitza hoberenak ematen dituelako».

Erraustegiaren aurka azaldu dira hainbat herritar

Kale antzerkiak egin dituzte Villabonako Txistulari plazan aire garbiko mundu hobeago bat aldarrikatzeko

M. Iraola

Atez atekoaren aurkako manifestazioa hasi baino ordu erdi lehenago, erraustegirik nahi ez dutela aldarrikatu zuten hainbat herri-

tarrek Zero Zabor plataformak deituta.

Villabonako Txistulari plazan ia 300 pertsona elkartu ziren. Kale antzerki hainbaten bidez erraustegia ez jartzeko eskatu zuten Horretarako, erraustegi bat irudikatu nahi izan zuten koloretako kea botatzen zuten bolak erabiliz. Erizain moduan jantzita beste antzerki bat egin zuten, eta zankoein ere ibili ziren.

Aire garbiak bira nazan, zero errausketa leloa zuten koloretako

pegatinak ere banatu zituzten gerturatu ziren guztien artean.

MunduMob Tolosan

Bestalde, ostiralean MunduMob ekimena ospatu zuten Tolosako Zerkausion. Orendainen hasi, eta Ibarra, Anoeta, Alegia, Aduna, Villabona, Zizurkil eta Tolosa zeharkatu ondoren, larunbat honetan emango zaio amaiera Donostian, eta Zero Zabor plataformak bertara azaltzeko deia luzatu die herritar guztiei.



Erraustegi bat irudikatu zuten. M. IRAOLA

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko, emakume euskalduna. 943 696882 / 606 5219922

SALGAI

Quad. Suzuki LTZ 400 markako quad-a. 3.500 kilometro ditu, guztiz ekipatua eta berria. Interesatuek, deitu 600 75 25 37a.



Mundumob egin zuten ostiralean Tolosako Zerkausion. I. TERRADILLOS



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Urrats berria, genero indarkeriarekin eta sexu erasoekin amaitzeko

Erakundeen Arteko Jarduerarako eta Koordinaziorako I. Udal Protokoloa aurkeztu dute osatzaileek Tolosan

Asier Imaz Tolosa

Genero indarkeria eta sexu erasoak pairatzen dituzten emakumei «arreta hobea» emateko protokoloa osatu du Tolosako Udalak: Erakundeen Arteko Jarduerarako eta Koordinaziorako I. Udal Protokoloa. Erakunde eta eragile desberdinen artean egindako urtebeteko lanketaren emaitza da protokoloa, eta besteak beste, udalarekin batera, Osakidetza, Asuncion Klinika, Ertzaintza, Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio saila eta Bilgune Feminista aritu dira lanean. Genero indarkeria eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeak ere parte hartu dute. Hauen lekukotza eta ekarpenak biziki eskertu dituzte protokoloa osatzen aritu diren beste kideek.

Protokoloaren helburua «asistentzia hobeagoa eta gertuagokoa» ematea dela azaldu dute eragile desberdinek, eta horretarako, ezinbestekoa dela guztien arteko koordinazioa, «ahalik eta eraginkorrena izan dadin». Ibai Iriarte Tolosako alkatearen esanetan, udal gobernuarentzat genero politiken inguruan lanketa sakonak egitea lehentasuna da, «onartezina delako, Tolosako herritarren erdia, emakumeak, bi-



Protokoloa landu duten eragile eta erakundeetako ordezkariak Tolosako udaletxean, atzo. A. IMAZ

garren mailako herritarrek izateak». Aurrera begira, gizartearen garapenarekin batera protokoloa aldatzen joatea nahi du Iriartek, gizartera egokituz joan dadin.

Ertzaintza ordezkatzuz Tolosako ertzain etxeko burua izan zen protokoloaren aurkezpen ekitaldian, Xabier Landa. Bere esanetan arazo honi aurre egiteko ez da nahikoa Ertzaintzaren lana: «Emakumeen aurkako indarkeria gure lehentasunetako bat da 2004az geroztik. Arazo honi aurre egiteko behar beharrezkoa ikusten dugu erakundeen arteko elkarlanean».

Eider Olazar Elduaen Bilgune Feministako kideak «oso positibotzat» jo zuen aurrera emango den protokoloa, eta eratze prozesua bera «oso interesgarria» izan dela esan zuen, «gizarte eragileak eta erakundeak elkarlanean aritu baitira». Indarkeria bizi duten emakumeei zuzeneko arreta eman behar zaiela uste du Olazarrek, eta hori bermatzea «funtsezkoa» eta «oinarrizkoa» dela esan

zuen: «Ezinbestekoa da zerbitzu integral bat izatea. Protokolo hau bakarrik ez da nahikoa, beste hainbat neurri eta politikez lagunduta joan beharko luke, baina horrek ez du esan nahi protokolo honek duen garrantzia nabarmendu behar ez denik».

Esther Arroyok Osakidetzaren izenean hitz egin zuen, eta esker oneko hitzak izan zituen lanean aritu eta mahaiaren bueltan berriro elkartu ziren guztientzat: «Kolektibo batek bakarrik ezin du arazo hau konpondu, arlo eta ondorio desberdinak baititu. Eragileen artean lanean aritzea oso garrantzitsua da, eta hor, justizia mundutik jaso ditugun zuzeneko ekarpenen balioa azpimarratu nahiko nuke». Aurrekoek bezala, protokoloa ez du gauza finko baten pare ikusten Arroyok: «Errebasatu egin behar da, jarraipena eman behar zaio, eta denbora baten ondoren, mahai gainean jarri behar dira datuak, aurrera pausok, gabeziak eta zer hobetu daitekeen».

Bide horretan, protokoloa berak bi jarraipen batzorde aurreikusten ditu: Koordinaziorako Batzordea, eta Koordinaziorako Mahai Teknikoa. Horrekin batera, genero indarkeriaren kasuetan udalak azaldu behar dituen adierazpenak eta ekintza publikoak zehaztuta gelditzen dira.

Etenik gabeko ahalegina

Genero indarkeriaren eta sexu erasoen injustiziari aurre egiteko, atzo aurkeztutako protokoloarekin batera, Tolosako Udala hainbat ekimen gauzatzen ari dela azaldu zuen Ibai Iriarte alkateak: «Horren adibide dira emakumeen jabeakuntza eta partaidetza sustatzeko antolatutako Jabeakuntza Eskolak, edota hezkuntza alorren Hezikidetzaren planarekin ikastetxeetan egiten ari den lanaketa. Azken hau, etorkizuneko Tolosari begira egindako proiektua da. Herriko gazteek umetatik kontzientzia izan dezaten, eta etorkizunean Tolosa parekideago bat izan dezagun».

Goio Jimenez tolosarra aske geratuko da 30.000 euroko bermepean

A. Imaz Tolosa

Goio Jimenez *Goito* euskal preso aske geratuko da datozen orduetan. Abokatuak familiari jakinarazi dioenez, 30.000 euroko bermea ordaindu ostean utziko dute aske preso tolosarra.

Espainiako Auzitegi Nazionalak 2008an dei egin zion Jimenez, EHAK alderdiaren aurkako auzian zerikusia zuelakoan. Tolosarrak uko egin zion epaitegira joateari, euroaginduen aurkako jarriera erakustearren. Salaketa honekin bat egin zuten beste hainbat euskal herritarrek, eta prentsaurrekoan agertu ziren. Espainiako Auzitegi Nazionaletik Jimenezen aurkako euroagindua igorri zuten, eta 2009ko ekainean atxilotu zuten. Urtebete espetxean egin ondoren, aske geratu zen.

2011ko martxoan berriro atxilotu zuten Baionan. Bere aurkako euroagindu eskaria zegoela jakinarazi ostean, Tolosako Seysses espetxean kartzalaratua izan zen, ondoren Espainiaratua izateko. Egun, Navalcarneroan espetxean zegoen.

Tantra masajea eta emozioen inguruko ikastaroan izena emateko aukera

A. Imaz Baliarrain

Tantra masajea eta emozioen inguruko tailer intentsiboa antolatu dute Baliarrainen. Aurre matrikula epea ekainaren 8an, larunbatean, amaitzen da, eta hiru plaza daude libre. Izena Zartagi jatetxean eman behar da, eta ikastaroak ekainaren 23ean izango da. Ikastaroak 10 ordu irauten ditu.

Bidegoiango Udala

IRAGARKIA

Udal Batzarrek 2013ko apirilaren 24ko bilkuran, Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzen den 2/2003 Foru Arauaren 36.a) artikulua ezartzen duen quorumarekin Udalen Bidegoian izen ofiziala aldatzeko prozedurari hasiera emateko erabakia hartu du. BIDEGOIANGOITZ deitzera pasatuko litzaizkela. Eta Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzen den 2/2003 Foru Arauaren 36.b) artikulua xedatzen duenaren bat, espeditzea jendaurrean erakutsiko da hogeitahamar laneguneko epean.

Bidegoian, 2013ko maiatzak 27
ALKATEAK
Izp., Joxe Erramun Goikotxea Amiana

‘Tolosa, euskararen hiria’ eraikitzeke asmoz

Tolosako merkatarien eta ostalarien %90 inguruk bere zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna dauka

A. Imaz Tolosa

Etorkizuneko *Tolosa, euskararen hiria* eraikitzeke, Euskararen Mahaia osatzen duten eragileek azken ikerketa datuak plazaratu dituzte, Tolosa&COrekin egin duten lanketaren harira. Merkatari-tza biziberritzeko plan berezia egiteko, Siadeco-k Tolosan egin duen azterketaren arabera, Tolosara gerturatzen diren hamar erosletatik 9,6ak positiboki baloratzen du Tolosako merkatari eta ostalariak eskaintzen duten ger-

tutasuna; eta bestetik, merkatari eta ostalariak euskaraz komunikatzeko duten gaitasuna positiboki baloratu dute hamar erosletatik zortzik.

Euskararen Mahaiko kideen esanetan, «euskarak balio erantsia ematen dio Tolosari, bere hiri izaera garatzeko ezinbesteko biktartekoa da eta». Ikerketaren arabera, egun, Tolosako merkatari eta ostalarien %90 inguruk bere zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna dauka; «gure asmoa berri, %100-era iristea litzake», azaldu dute mahaiko kideek. Ez hori bakarrik, Tolosa&CO-k irudikatzen duen Tolosa nahi dutela gaineratu dute: «Euskarak ate guztiak irekiak izango dituen eta gertukoak, kalitatezkoa eta antza izango den hiria». Bide horretan, beste esparruetako eragileekin

pausoak eman nahi dituztela azaldu dute Euskararen Mahaitik.

Estitxu Garainen hitzaldia

Euskararen hiria gauzatze alde- ra, alde batetik, komunikazioaren alorrean interesa duen orori eta, batik bat, hirugarren sektorean lanean dabiltzanei zuzenduta, Estitxu Garainen hitzaldia antolatu dute biharko, hilaren 5ean, Tolosako kultur etxean. *Euskar, tresna eta aukera merkataritzan* da 20:15ean hasiko den hitzaldia- ren izenburua. Komunikazio ego- era bakoitzari dagokion gakoak izango ditu Estitxu Garaik min- tzagai; saltzaile eta eraginkor iza- teko jarraibideak azaltzearekin batera.

Bestalde, Tolosa&Corekin el- karlanean, Tolosako ostalari- ei

begirako diagnostikoa egin berri dute. Datuak eskuan, proposame- nak luzatzen hasi dira, eta emai- tzak «epe motz-ertainean ikus- tea» espero dute. Adibidez, ostal- aritzari dagokionean, menuak euskaratzeko plana aurkeztuko dutela iragarri zuten Euskararen Mahaiko kideek: «Izan ere, euska- raz bizitzeko, euskara ahora era- man behar dugu jaterakoan ala edaterakoan nahiz erosketak egi- terakoan. Bide bera egin asmo dugu merkatari-ekin. Interesa du- tenekiko diagnostikoak egin eta proposamenak eskaini».

Guztien artean sortu nahi dute euskararen hiria, eta horretarako ideiak badituzte: Tolosako ikaste- txek D eremuan irakatsiaz; nor- banakoek, Banaiz Bagaran, Ai- tzolen edo Mintzalagunak euska- ra ikasi eta praktikatuz...



Tolosa Lore eta Landare Azokan, landareez gain erlezaintzako produktuak ere izan ziren. **E. MAIZ**



Tolosa Artisanen postuek San Prantzisko pasealekua hartu zuten, asteburu osoan. **E. MAIZ**

Lore eta Landareen Azokaz gain, artisauak izan dira, eta BOX-An Black Market arte azoka egin dute; azken ostiraleko elkarretaratzeaz gain, Ina Zeberioaren urteurren omenaldia izan da.

Lore eta landareek jarri dute kolorea

Eneritz Maiz

Ekainaren lehen eguna ere euripean esnatu zen, baina Lore eta Landareen Azokak eman zion kolorea Tolosari. Trianguloko plaza landare eta lorez bete zen. Lorezainak gain, ordea, erlezaintza ere izan ziren beraien postuekin. Hainbat produktu ikusteko eta erosko aukera izan zuten Tolosara joan zirenek. Hainbat artisauak San Prantzisko pasealekua hartu zuten. Era eta ostiraleko betetako postuak izan ziren, asteburu osoan zehar.

Ez zen azoka bakarria izan. Artisanen hainbat adierazpen gaitzeko aukera izan zen San Esteban auzoan dagoen BOX-An. Egun osoz, Black Market arte azoka egin zuten. Hainbat postu izan zituzten, eta bakaria ere bertan egin zuten. Ondoren, musika izan zen Marie Desauvren eskutik, eta afariak eta bonen atzeko dantaldiak eman zitoten amaiera azokari. Era berean, Txingarta elkartearen, asteburuan, Boliguren Festa egin zuten. Honek, badiok eta afariak Tolosa eta Orio elkartu nahi izan zituzten.

Tolosaz gain, Anoetan ere festa izan dira nagusi asteburuan. Atsedetik hartzeko tartetarik ere ez dute izan, ekitaldiak betetako egunak izan baitituzte sarriak. Igandean ligo zen kukua aurten goi agur esateko.

Albiste guztiak, argazkiak izan da, eta Tolosako Asuncion klinikako langileak, Inaiza enpresakoak, mobilizatzen ari dira

«murtizetarik gabeko» lan hitzarmena lortzeko. Pasa den aste-
an egin bezala, Tolosako Triangu-
lo plazan izan ziren, larunbate-
an. Ordubetez protesta egin
zuten, eta gerturatuak herri-
rei informazio eman zuten, bizi
duten egoera zein den azalduz.

Zeberioari omenaldia
Ina Zeberioaren hilketaren 15. ur-
teurrenko omenaldia egin dute,
Lizartzan, Larunbat eguerdin,
ordea. Lizartatik joandako seni-
deak eta lagunak Gernikan bildu
ziren bera hil zuten etxearen atar-
rian. Gernikako lagunekin bate-
ra, omenaldi xumea egin zuten.
Igandean, lehenik eta behin,
Auzandeko mendian dagoen on-
garrian ere ekitaldi txiki bat egin
zen eta oinez joan zirenak gero
hainbatokoa egin zuten. Egur-
dian, herrian burutu zuten ekital-
di nagusia, eta ondoren elkarte-
aren bukarria egin zuten.

Tolosalden euskal preso eta
iheslarien alde Herria-k antola-
tutako mobilizazioetan hainbat
herri-tarte hartu zuten,
maiztzeko adimen ostiralean: 25-
zuzkilen 30 pertsona; Amasa-Vi-
llabona, 112 burua; 30, Ibañe-
tan, 16; Anoetan, 47; Tolosan, 78;
Iberran, 33; Berrobin, 8; Beras-
tegin, 24; Leaburu-Txaraman, 13;
Gaztelun, 21; Lizartzan, 38; Al-
ton, 29; Alegian, 20, eta Ansoe-
tan, 12.

@ Albiste guztiak, argazkiak
edota bideoak sarean
daude ikusgai:
tolosaldea.hitza.info



Tolosa Black Market arte azoka egin zuten BOX-Akoek, larunbatean. **E. MAIZ**

Jantzi zure oinak prezio ezin hobean

Prezioa **11,9€** berria

www.mauka.eu

Ostiraldi ostiralek
Uzt. Arantz. Berrak/Dorcas
Ostir. Zuzeneko/Dorcas
Ostir. OPI/Dorcas
M. 9048 40 30
www.mauka.eu

GAURKO ESKATITZA



Tolosa Txingarta elkartearen Boliguren Festa egin dute, asteburuan. **JOSE MANUEL**



Tolosa Asuncion klinikako langileek Trianguloko plazan protesta egin zuten. **E. MAIZ**



Anoeta

Bost egunez luzatutako festai amaiera eman diete anoeitarrek; besteak beste, larunbatean, sagardo dastaketa izan zuten eta gasteen eguna izanik kalejiran ibili ziren. **E. MAIZ**



Amasa-Villabona Euskal preso eta iheslarien alde, azken ostiralean. **M. KOLA**



Lizartza Ina Zeberioaren hilketaren 15. urteurrenko omenaldia egin dute. **E. MAIZ**



Amasa-Villabona Euskal preso eta iheslarien alde, azken ostiralean. **M. KOLA**

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila	Erdi maila
- Gizarte Integrazioa - Haur Heziketa - Osasun Dokumentazioa - Diagnosi Irudia - Erradioterapia	- Erizaintza laguntzailea - Farmazia teknika

FORMAZIO BERRITZAILEA ETA KALITATEZKOAK

AURREMATRIKULAK

Mailetzaren 27tik

ekainaren 7ra

Tel.: 943 67 36 29

www.inmakuladatolosa.com

Lehen mendi erronka gainditu du Leitzak

ESAI Tek antolaturiko lasterketaren balantze «oso baikorra» egin du; boluntarioen lana eskertu dute

Iñigo Terradillos Leizta

Eguraldiak lagundu ez arren, «giro polita» nagusitu zen larunbatean ESAI Tek antolaturiko I. Euskal Herria Mendi Erronkan. Antolatzaileak «oso gustura» geratu dira ekimenak izan duen harrearekin, «helburuak bete direlako eta guztia espero bezala irten delako».

500 lagun baino gehiago izan ziren larunbatean Leitzako helmugan 65 kilometroko ibilbidea egiteko prest ziren lasterkariak. Leire Agirrezabala ibartarra eta Angel Arrieta Uhart-Arakilgoa izan ziren bukatzen lehenak. Agirrezabalak 8 ordu 24 minutu eta 8 segundo behar izan zituen, eta Arrietak, berriz, 6 ordu 45 minutu eta 51 segundo. Bigarren emakumezkoa, Silvia Trigueros, ibartarra baino 13 minutu geroago helmugaratu zen, eta hirugarrena Monica Grajera alkizarra, 30 minutura. Gizonezkoen kasuan, bigarren sailkatua, Gaizka Barañano amurriotarra izan zen 7 ordu eta 4 minutuko denborarekin, eta bederatzi minutura, Iñaki Martiarena geratu zen hirugarren.

Bestalde Kilometro bertikala ere egin zen, Gaintza eta Irumugarrieta artean, eta Angel Arrieta izan zen azkarrena hemen ere. Leire Agirrezabalak ere maila bikaina erakutsi zuen hemen, seigarren geratu baitzen.



Angel Arrieta probaren irabazlea Leitzako helmugara ailegatzen. E. MAIZ



Ezkerrean, lasterkariak ibilbidean zehar; eskuinean paella erraldoia prestatzen Leitzako plazan. HITZA/E. MAIZ

ESAI Tek antolaturiko ekimenak lasterketarekin batera, euskal selekzioaren aldarrikapena eta festa uztartzea zuen helburu, eta jai giroa izan zen Leitzan egun osoan. Hala, esaterako, gaztetxoen zat jolasak jarri zituzten, eta paella erraldoia prestatu zuten bazkaltzeko.

Balantze baikorra

Martxel Toledo ESAI Teko koordinatzaileak «oso balantze baikorra» egin dutela adierazi du: «Lehenengo aldiz egin dugula kontuan izanda oso pozik gaude; batetik, parte hartzearen aldetik, izugarriko arrakasta izan dugu, izen ematea itxi egin behar izan baikenuen muga gainditu zuelako; bestetik, probarekin ere oso gustura gaude, lasterkarien balorazioa oso ona izan baita, bai zirkuituari dagokionez, oso polita izan dela esan baitgute, eta baita antolaketari dagokionez, ere, guztia oso ondo antolatua zegoela esan baitute lasterkariak».

Aurtengoak izan duen harrera ona ikusi ziurtzat jotzen du Toledok datorren urtean ere bigarren Euskal Herria Mendi Erronka egingo dela. «Lehenengoa oso ondo joan bada, ez dugu kezkarik bigarrena ere oso ondo joango dela». Bada, lasterketa ondo atera izanaren arrazoietakoa bat boluntarioen laguntza izan dela esan du ESAI Teko koordinatzaileak: «Lasterketa posible egin duten guztien laguntza eskertu beharra dago, bereziki herritarrena; Leitzan auzolanerako ohitura handia dutela, eta segituan jartzen dela jendea lanean esan ziguten, eta ikusi dugu horrela dela, lan handia egin baitute».

Leire Agirrezabala • Lasterkaria

«Oso lasterketa polita izan da, eta pozik nago lortutako emaitzarekin»

I. Terradillos Ibarra

Euskal Herria Mendi Erronkako lehen emakumezkoa izan zen Leire Agirrezabala (Ibarra, 1987). «Oso pozik» dagoela lortutako emaitzarekin azaldu du, ez baitzuen «inondik inora» lehen postuan amaitzea espero.

Hain emaitza ona ez zenuen espero. Eguraldi txarragatik parte ez hartzea ere pentsatu nuen, beraz, sinistu ezinda nago, oso gustura.

Zer moduzko lasterketa izan zen?

Asko gustatu zait, oso lasterketa polita izan da. Eguraldiarena pena izan da, ikuspegi ezin izan dugulako erabat gozatu.

Zer moduzko giroa egon zen?

Oso giro polita egon zen. Euria egin arren jende asko egon zen lasterketaren hainbat puntutan, Lekunberrin edota Gaintzan esaterako, eta Leitzan ere jende asko elkartu zen.

Mendi lasterketa askotan parte hartu al duzu?

Leitzakoa bigarrena izan da. Maiatzean Iratin izan zen lasterketan parte hartu nuen, eta han bigarren egin nuen. Hura maratoi erdia izan zen, eta oso ondo etorri zitzaidan Leitzako probarako entrenatzeko.

Mendi lasterketetan hasi berria zara, beraz.



ENERITZ MAIZ

Bai, baina atletismoan urte asko daramatzat, hamar urte nituenen hasi bainitzen korrika. Azken urteetan maratoietan parte hartu izan dut askotan, eta mendi lasterketak probatzeko gogoz nengoen. Pasa den urtean eman nahi nuen pausoa, baina, azkenean aurtan animatu naiz, eta espero baino emaitza hobekak lortu ditut. **Datorren urtean ere errepikatuko al duzu Leitzako lasterketan?** Oraindik asko geratzen da horretarako, baina ziurrenik berriro ere parte hartuko dut.

Egingo dituzun hurrengo probak?

Asko dauzkat buruan. Esaterako, Zumaian izango den lasterketan parte hartuko dut, eta Pirinioetan egingo den beste batetik ere deitu didade, beraz, han ere izango naiz.

Asko entrenatzen al duzu?

Bai. Erresistentzia probetan emaitza onak lortzeko asko entrenatu behar da. Nire kasuan, ia egunero entrenatzen dut.

Bengoetxea buruz buruko txapelketatik at geratu da

Irujoren aurka 22-13 galdu du leitzarrek; Bidegoian, Tolosa eta Zizurkilek egin dute aurrera herriartekoan

I. Terradillos

Buruz Buruko Pilota Txapelketatik kanpo dago Oinatz Bengoetxea leitzarra. Irujok 22 eta 13 irabazi zion herenegun Atano III.a pilotalekuan jokatu zuten partida. Iberokoa Bengoetxea baino gehiago izan zen, eta hori bere kolpean frogatu zuen. Leitzarra saiatu zen, eta arriskatu zuen, baina ezer gutxi egin ahal izan zuen partidari buelta emateko.

Bestalde, Herriarteko Txapelketari dagokionez, Bidegoianek, Tolosak eta Zizurkilek lortu dute aurrera egitea. Bidegoianek 2-1



Bidegoianek Alegiari irabazi zion. HITZA

irabazi zion Alegiari, eta orokorrean 4-2 izan zen emaitza. Tolosak ere 2-1 irabazi zion Berrobiri, eta emaitza orokorra 4-2 izan zen. Zizurkilek ere 2-1 garaitu zuen Bergara, 4-2ko emaitza orokorreakin irabazi zuen. Amezketaren txapelketatik at geratu da, Hernaniren aurka 3-0 galdu baitzuten, eta orokorrean, 5-1.

Bestalde, Migel Soroaren Orokoreneko I. Ogiberri Txapelketan, Dario-Sarasak 22-21 irabazi zuten, Larunbe-Xanet Imazen aurka, promesen mailan. Kadeteen mailan, Peña-Martiak 22-8 irabazi zuten Okiñena-Martinezaren aurka, eta elite mailan, Agirre-Telletek 22-13 irabazi zuten Ansotegien aurka.

Zazpi urrezko domina eskuratu dituzte Tolosa CF-koek Euskadikoan

Donostian nahiz Durangon Euskadiko Txapelketa eta Eskolartekoa jokatu berri dituzte

Erredakzioa

Maila bikaina erakutsi dute, beste behin Tolosa taldeko atletek. Izan ere, Donostian izan berri den Euskadiko adin txikikoen txapelketan 7 urrezko domina eskuratu dituzte.

Junior mailan Aitor Arraiza bi aldiz igo zen podiumera. Pisuaren Euskadiko txapeldun izan zen 13,39 metro jaurtiz eta diskoarekin bigarren postua lortu zuen, 41,96 metroarekin. Ibai Goñik ere urrezko domina eskuratu zuen 110 metro hesietan, 17,03 eginez.

Jubenil mailan emaitzak ere hobeak izan ziren. Iker Ortizek jabalinan (44,17 m), Imanol Mendizabalek diskoan (42,37 m), Nerea Muruak 400 metroan (1.01.67), Amaia Elizegik 400 metro hesiak (1.09.40) eta Helene Colomok diskoan (35,93 m) garaipena eskuratu zuten. Nerea Muruak, gainera,

800 metroetan ere domina eskuratu zuen, hirugarren helmugaratu baitzen. Pisuaren, berriz, Anton Elosegik zilarrezko domina eskuratu zuen (11,79 m) eta Ander Lakunza hirugarren izan zen (11,19 m). Podiumera igo ziren baita ere Julen Martin luzeran (5,52 m) eta Ainhoa Rueda 100 metro hesietan (15,38). Azkenik, Iñigo Puertak 100 eta 200 metroetako probetan bere markarik onena lortu zuen.

Durangon izandako txapelketan, berriz, Maria Alvarezek mailuan Espainiko Txapelketara joateko gutxienezko marka lortu berri du 41,33 metroko jaurtiketarekin.

Bestalde, Eskolarteko Euskadiko Txapelketan ere Tolosako zenbait atletek hartu zuten parte, Durangon. Nesketan, Laura Biurrun eta Maria Lasa izan ziren. Lehenengoak 80 metroetan 10,85eko denbora egin zuen, eta bigarrenak altueran, 1,40 saltatu zuen. Mutiletan berriz, Anoetakoek, talde modura parte hartu zuten eta emaitza onekin, gainera. Hirugarren postua eskuratu zuten, bigarren taldearekin berdinez.

Otaegi hirugarren, eta Rekondo laugarren

Urrezko Aizkora Txapelketako finala irabazi du Floren Nazabalek; bigarren Atutxa izan da

I. Terradillos

Ez zen ezustekorik izan herenegun Azpeitian jokatu zen Urrezko Aizkora Txapelketako finalean.

Floren Nazabal izan zen garaile, eta alde handiarekin, gainera. Bigarren Aitzol Atutxa geratu zen, eta Otaegi zizurkildarra eta Rekondo leitzarra hirugarren eta laugarren geratu ziren, hurrenez hurren.

Sei lan egin zituzten, eta horietatik lauretan Etxarrikoa izan zen nagusi. Bigarrenari ia hiru minutuko aldea atera zion, hirugarrenari lau minutuko aldea, eta laugarrenari ia bostekoa.

Lizaso eta Alkorta Gipuzkoako Segatxapelketako finalean

Jesus Mari Ormaetxea 'Urki' orendaindarra txapelketatik at geratu da; Aian jokatu du finala, hilaren 23an

I. Terradillos

Gipuzkoako Segatxapelketako kanporaketa saioa jokatu zen herenegun Zizurkilgo Areta base-erriko belardietan. Bi taldetan banatuta zortzi segalari aritu ziren lehian, tartean, hiru eskualdekoak, Jesus Mari Ormaetxea 'Urki' orendaindarra eta Juan Jose Lizaso eta Mikel Alkorta asteasuarrek. Bada, Lizasok (1.806 kilo) eta Alkortak (1.687 kilo) lortu zituz-



Juan Jose Lizaso alkizarra lanean, herenegun. JONE AMONARRIZ

ten finalerako txartela, euren taldeko lehen bi postuetan sailkatu baitziren. 'Urki', berriz, 1.761 kilo jasota bere taldeko hirugarren postuan geratu zen. Bi alkizarrekin batera, Igor Esnaola eta Mikel

Garayalde ariko dira Gipuzkoako Segatxapelketako finalean.

Ekainaren 23an jokatu du lau segalarietako finala, Aian. Segalari bakoitzak ordubeteko lana izango du.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzalea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIK

■ **Orexa.** Tolosaldeko Mankomunitatearen Birziklapen Bira ia amaitzean da, eta gaur, Orexan, 19:00etan, hitzaldi tailerra izango da.
■ **Gaztelu.** Ekainaren 21ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia izango da Gazteluko jolasokiaren alde. Sarrerak salgai jarri dituzte 6 euroren truke: Tolosako Orbelan, Ibarra Sendi Ekintzan, Alegiako Route 33n eta Gazteluko udaletxean.

ERAKUSKETAK

■ **Ibarra.** Kultur lantegietako artelanen erakusketa dago ikusgai, kultur etxean. 10:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30ean izango da zabalik, eta hilaren 21a bitartean.
■ **Tolosa.** Tolosako euskal idaz-

leak erakusketa dago haur liburategian. 17:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Elkarrekiko menpekotasunak eta Juan Gabriel Vic erakusketak daude Aranburu Jauregian.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa / Altzo



VIGON IZAN DA ABESBATZEN AHOTSA

Tolosako Hodei Truk abesbatzak eta Altzoko abesbatzak, David Azuraren zuzendaritzapean Vigoko Musika eskolako haur eta helduen taldeekin asteburua pasa du. Elkartrukea egin dute, eta errepertorio anitza interpretatu zuten. Joxe Mari Iturralderen testu batean oinarritua den David

Azuraren Kanbon palangak pagoz konposizioa abesten amaitu zuten emanaldia bi abesbatzek. Taldeek «txalo ugari jaso zituzten». Vigoko Musika Eskolako taldeak, datorren urtean Tolosara etorriko dira. «Esperientzia zoragarria izan da», adierazi dute. HITZA

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurak



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Sarasola Sagardotegia Bi laguntzako bazkia

Asteasu • Tel.: 943 69 02 83

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 Txindokiko itzala Bi laguntzako bazkia

Larraitx • Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67 / 628-94 72 53

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 Eureka zientzia museoa Bi laguntzako bazkia

Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel.: 943 01 24 78
www.eurekamuseoa.es

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu hitza.info helbidean ZOZKETAK atalean.
Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.